




ENPLEGUARI BURUZKO IGURIKIMENAK

Enpleguaren igurikimenak zertxobait hobetu dira European

ENPLEGUAREN IGURIKIMEN INDIZEA EUROGUNEA

2020KO MAIATZA
70,2




Europako Batzordeak argitaratutako informazioaren arabera, apirilko jaitsieraren ondoren, maiatzean zertxobait suspertu dira enpleguari buruzko igurikimenak. Hala erakusten du enpleguaren igurikimen indizeak (EEI, ingelesezko siglengatik), euroaren eremuan apirilean 58,9 izatetik, serie historikoko baliorik baxuena baitzen, maiatzean 70,2 izatera igaro baita. Beraz, hamar puntutik gorako suspertzea da, baina indize horrek 2000. urtetik izan duen batez besteko balioaren (100) oso azpitik dago oraindik.

Oro har, indizea kalkulatu den herrialde guztiek erakusten dute beherakada eta ondorengo hobekuntza handi hori, nahiz eta intentsitatea, bai beherakadarena bai susperraldiarena, oso desberdina den bakoitzean. Alde batetik, aurreikuspenen okertzea ez zen oso garrantzitsua izan Alemanian, apirilean 78,7ko balioa izan baitzuen eta orain 81,7ra igo baita. Bestalde, ezkortasuna askoz handiagoa izan zen Frantzian, apirilean indizea 47,9ra arte jaitsi baitzen, eta maiatzean 58,2ra arte errekuperatu.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ALEMANIA




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Espainia aipatutako bi herrialdeen arteko tarteko egoera batean kokatzen da. Apirileko jaitsierak 64,7ko balioan utzi zuen indizea eta, Frantzian gertatu den bezala, serie historiko osoko daturik baxuena da. Geroztik, maiatzeko ondorengo susperraldiak 78,0ra igo du indizea. Beraz, susperraldi bizia da, 13 puntu baino gehiagokoa, baina oraindik pertzepzioa 22 puntutan hobetzea falta da martxoko datura eta batez besteko historikora itzultzeko.


ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK.ESPAINIA



ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK, HERBEHEREAK




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. BELGIKA



Europako herrialdeen mosaikoan, deigarria da Portugalen bilakaera, koronabirusaren pandemiari ondo erantzuten ari den herrialdea baita. Herrialde horretan, igurikimenak oso baikorrak ziren birusa zabaldu aurretik, eta apirilean 74,6ra arte jaitsi ziren, baina maiatzean 92,2ra berreskuratu dira, 17 puntu baino gehiagoko hobetuta. Tamaina ertaineko beste herrialde batzuk aipatzearen, Belgika 70,7an dago gaur egun eta Herbehereak, berriz, 83,5ean.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. PORTUGAL



Iturria: Europar Batzordea.